Oooh Telebista!

HASIER ETXEBERRIA

JIRA eta buelta dabiltza gure ordezkariak ET-Bren auziarekin. Tira hemendik eta tira handik, oraindik ere ez da inondik ikusten argitasunik. Badirudi, hainbeste buelta ematen diotela ikusita, oso gai zaila gertatzen zaiela berau. Orain, Aste Santu osterako atzeratu berri dute debatea.

Ondo pentsatzen jarrita, ordea, ez da hain zaila Euskal Telebistari buruzko auzia konpontzea. Azken finean zernolako telebista nahi den erabaki behar da lehendabizi, zenbat diru daukagun jakin bigarrenez, eta projektu hori gardentasunez aurrera aterako duten gizataldeak antolatu hirugarrenez. Hara hor, oinarrian, korapilo guztien kakoa formulaturik.

Esan bezala, berez ez dirudi hain zaila guzti honek garbi jokatzen bada behintzat. Beste gauza bat da, ordea, tartean alderdi erabilerak eta ekonomi interes pribatuak gurutzatzen baldin badira. Orduan akabo dena.

Debatea atzeratuta geratu den honetan, ez dator batere gaizki Madrilen sortu berri den Irratelebista Publikoaren aldeko Plataformaren zenbait aholku kontutan hartzea: «Parlamentuak, Irratelebista Publikoa botere politikoetatik aske utziko duen legedi bat ezarri behar luke, bere independentzia eta egonkortasun ekonomikoa bi finantziabideen bitartez (publizitatea eta presupostuetatikoa) bermatu beharko lukeelarik...».

«Irratelebista Publikoak anbiziosoa behar du izan, sinesgarritasunez betea, kalitate kulturalez josia. Gizarteren kontrolpekoa eta autonomia profesionalduna».

«Irratelebista Publikoak gure gizartearen baliorik sendoenen ispilu izan behar du. Horrek programazio egoki batean euki beharko du bere islada, batik bat haurrentzako programazioan, biolentziarik gabe, diskriminatze sexual edo arrazakeriarik gabe. Sentsazionalismorik gabe...»

Horiek eta gehiago ez ditut oraingoan nik esan. Beste batzuk izan dira: J.L. Aranguren filosofoa, Rosa Leon, Buero Vallejo...

Leioan gaindi

TXILLARDEGI

ATZO 'Anuntziazio' bikoitza izan genuen; Ama-Birjinaren amatasunaz gain, Joserraren bulegoaren husketa 'anuntziaturik' baitzegoen.

Eta hara azaldu ginen, Leioara, goizeko hamarretarako. Ertzantzaren balentria ausarta ikusi nahi genuen geure begiez... Baina ez zen ertzainik paraje haietara azaldu.

Bertsolarien saioa entzun genuen orduan Areto Nagusian. «Sekula ikusi ez den bezala» zegoen. Hura ametsa! Ezen, noiz egon da Euskal Unibertsitate ofizialean horrelako euskal garrik? Oinarria badago. Baina horretarako dugu 'euzko jaurlaritza': oinarrizko bultzada euskaltzale hori... oztopatzeko.

Joserra Etxebarria ere agurtu genuen dinamismoa eta sasoi hutsa izan den gizona, seihilabetetako itxialdiaz eta hamar egunetako gose-grebaz, ahulduta dago erabat.

Hordagoa hor dago: Buesaren agindu nabarmenez, Errektoreak bere aginpidea erakutsi nahi du. Eta edozein mementutan sartuko da 'Erchancha', eta ostikoka Joserra eta borrokakideak kanpora aterako.

Galtzaile, oraingoz behintzat, Joserra Etxebarria agertzen zaigu. Euskal Unibertsitatearen eraikuntzan gehienik saiatu den gizona.

Irabazle, oraingoz behintzat, Buesa, eta PNVko zipaioak. Ikastolen sarea likidatu ondoren, orain UPV '*Universidad española de aquí*' hori lortzekotan, azken ekinaldian.

Bapo, mutilak!

Unibertsitatea pizteko eta indartzeko, argibide ederra! Joserra eta bere lagunak *kanpora*; eta Buesa eta bereak barruan, *tinko eta nagusi*.

Horrela eraikitzen omen da Euskal Herri askatua...

Zein astaputzek oraindik horrelakorik sinetsiko?

HEMEROTEKA

●egin

Estatuaren beldurra

Unai Parot ez da gaur lekuko gisa deitu duen Pariseko auzitegiaren aurrean egongo. Espainiako Justizia ministerioa, auzitegiaren eta euskal preso politikoaren beraren borondatea kontuan hartu gabe, eragotzi egin du aukera hori.

Madril zuzeneko agertze horren beldur da. Espainian nahiko erraza da zuzenbidezko Estatu batean justifika ezin daitezkeen polizi jarduerak ezkutatzea, torturen ondorioz kondenatutako agenteak indultatzea, tratu txar horien biktimen izena beztea eta bakarrik poliziaren aurreko aitorpenetan oinarritutako kondenak ematea. Baina Parotek Pariseko epaiketan hitzez azaltzerik izango balu nola lortu zituen Goardia Zibilak bere aitorpenak, ikusketak, are zazpi euskal preso kondenatu edo absolbitzeko bere hasierako xedeak bazter utzi gabe, espainiar Poliziaren kontrako prozesu baten ezaugarriak har litzake. Legearen letra betez gero, prozedura osoa edo zati bat baliogabe liteke, eskubideak urratuz lortutako adierazpenetan oinarrituta baitago. Hori guztia nazioarteko oihartzuna izanik.

EDITORIALA



RICARDO Y NACHO / EL MUNDO

●EL PAIS

Intifada berria

Azken asteotan, Israelek okupatutako palestinar lurraldeetan, beste Intifada bat lehertu da hasierako Intifadaren baitan. Duela bost urte baino gehiago palestinar herria, nahiz eta armarik gabe izan, soilik ahotsa erabiliz bere eskubide nazionalak erreibindikatu nahian okupatzailearen aurka altxatu zen israeldar irredentistek Judea eta Samaria eta oro har munduak Zisjordania eta Gaza edo lurralde okupatuak deritzeten tokietan. Denbora tarte honetan, Israeleko Armadak harria eta makila biolentzia tresna bakartzat zituen matxinada bat erreprimitu egin du. Tarte horretan, ehunka palestinar eta dozenaka israeldar hil ziren. Baina azken hilabeteotan, are azken asteotan ere, zerbait aldatu da herri leherketa honen baitan.

Hortaz, gerra bikoitz edo hirukoitz baten aurrean gaude. PAEk, zonalde horretan dituen ordezkarien bidez, okupatzailearen aurkako betiko Intifadari eusten dio; Hamas-ek zalaparta eragiten du etsai beraren aurka bere gerra partikularraren bidez baina, aldi berean, PAEren aurka lehiatu eta borrokatzen da eta, azkenik, Israel bi etsai horien aurka borrokatzen da nahiz eta era desberdinak erabiliz, horrela baten batek militarki hain erasokorra ez den etsaia nolabaiteko laguntza politikoa balitz bezala ikustea eragitearren. Hortaz, egia da badagoela Hamasen fanatismoaren aurka egin beharreko gerra politiko bat. Baina horrek sionisten funtsezko dogma batzuei uko egitea eskatzen du. PAE zonalde horretan bake alternatiba bat izan daiteke, nahiz eta, ezbairik gabe, prezio handi baten truke izan. Hori horrela ez onartzea israeldar okupatzaileen beste hutsegite bat litzateke.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Kapitalismoaren aurka

Bederatzi urte pasa dira Pasaian lau borrokalari erahil zituztenetik, eta urtero bezala guk Martxoak 27an Azpeitian gogorazi nahi dugu beraiek kapitalismoaren aurka bultzatzen zuten borrokak jarraitzen duela.

Pasaiako sarraskian erahilak izan ziren lau autonomo kidek garbi utzi zuten kapitalaren bizi-molde basatia ez zutela onartzen eta zapalkuntzarik gabeko gizarte aske eta solidario baten alde borrokatzen zutela.

Ia hamarkada betetzen den honetan ordungo egoera ez dela hobetu ikusteko azterketatxoa egin nahi genuke:

— Frankismoaren garaian ere ez zeuden hainbeste preso gartzeletan, hauetariko gehienak sistema honek duen zutabe nagusia erasotzeagatik, hain zuzen propietate pribatua. Ehundaka preso politiko, ezin ahaztu errefuxiatu eta exiliatuak, hauen delitoa Euskal Herriaren soberaniaren alde borrokatzea izanik.

— Kapitalaren gestoreak diren alderdi politiko erreformisten politika ekonomikoa: betikoentzat krisis ekonomikoa eta aberatsak gero eta aberatsago.

Langileak kaleratuak inongo eskubiderik gabe, miloika langile ekonomia ezkutuan, langabetuentzat dekretazoa, arrazakeria, e.a.

— Poliziaren ugalketa. Euskal burgesiaren morroi zintzoak diren txapel-gorriak hedatu dira gure herrietan. Euskaldunak baino txakurrak.

— Ikusirik gazteok paso egiten dugula soldaduskara joatea, ejertzitoa profesionalizatzeko bidean.

— Eliza bere politika zuritu nahian beraien jarraitzaile fanatikoak ez galtzeko eta gazteengan gero eta jarrera kontserbadoreagoak ezartzeko. Abortoari ez baina Heriotz Zigorrari bai.

— Gero eta komunikabide indartsuagoak: telebista pribatuak, egunkari sasi-demokratak, bideoak..., azken finean droga gogorrak gero eta gutxiago pentsatzeko eta inguruetako arazoez ahaz gaitezen.

— Txikizio ekologikoak: autobiak, urtegiak, zabortegiak, superportuak, AHT,...

— Emakumeen aurkako erasoak: jipoiak, bortxaketak, abortatzeko eskubide eza,...

— Euskararen aurkako jarrera faszistoideak.

— Klase sozial intermedioak: progreak, yuppiak, pezeteroak, lamekulosak, salatariak, sindikatuetako liberatu eta erreformistak, e.a.

Guzti hau dagoelako eta ez dugulako onartzen borrokatu beharra ikusten dugu eta benetan gizarte Demokratikoan bizi gaitezen gaur egingo dugun omenaldi honetako ekitaldietan parte hartzeko gonbidatzen zaituztegu.

PRESOEN ALDEKO TALDEA

Azpeitia (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

Arrazakeriaren kontrako mobilizazioak

Beltz izatea zoritxarra da
zuri berriz ohorea,
ez dira horren errez bereizten
osina eta lorea.
Zer ajola du itxura edo
azalaren kolorea,
hori da gure erizpide ta
ahaztutzen dugu ordea,
barruagoan aurkitzen dala
pertsonaren balorea.

JOKIN SOROZABAL

Egunkaria

Bat[illegible] SS 800/90

OJDren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI
Gerentea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: IÑAKI URIA
Zuzendariordea: LUZIEN ETXEZAHARRETA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo/ ☎: 423 90 62/ Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11